

Enpresagintza Fakultateak kultur ekimen bat jarri du martxan: "No More Boring Fridays"

2011/03/16

"No more boring Fridays" "Ez ostiral aspergarri gehiagorik". Hau da Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko azken apustuaren goiburua. Ekimen honek, ikasleen eskutik, saio kulturalak prestatu nahi ditu ostiral gauetan unibertsitate esparruaren barruan. Jarduera kulturalak dira, kontzertuak, bakarrizketak, antzerkiak edo hitzaldiak, zenbait ostiraletan, 20:30etatik 22:30etara gutxi gorabehera, eta doan.

Ekimenaren xedea unibertsitatea bere espazio akademiko eta ikerketakotik ateratzea da, jendearengana hurreratzeko, horiek izanik ikasle, langile edo unibertsitatekanpokoak, baina jarduera programatu horretan interesa dutenak. 'No more boring Fridays' datorren ostiralean abiatuko da, martxoaren 18an, 20:30etan, Josu Bergararen kontzertu batekin, Fakultatean bertan. Josu Bergara abeslari eta musikagile euskalduna da, zuzenean aritzeaz, eta grabatzeaz gainera, sareak erabiltzen ditu musika ezagutarazi eta harremanak egiteko.

